

Alkate hori:

Nik _____ k _____ NA duenak eskatzen dut Lasarte-Oriak berehala konpon dezala gizarte zerbitzuetan dagoen baliabide eskasia eta kontratatu dezan genero gaitan beharrezko politika publikoak abian jartzeko ezinbestekoa den Berdintasun-Teknikaria.

Izan ere, kezkarria da gure herrian bizi dugun egoera. Gipuzkoa osoan, Hondarribiarekin batera, Berdintasun Teknikaririk ez duen 19.000 biztanleko herri bakarra gara, eta horren ondorioak larriak dira. Era berean, halako biztanle kopurua edukitzeko gizarte zerbitzuen baliabideak urriak direla uste dugu. Zerrenda luzea egin dezakegu, baina hona hemen halako postu tekniko bat eta gizarte zerbitzuetarako baliabide nahikoa ez edukitzeak sortzen dituen zenbait kalte:

Publiko egindako datuak ondokoak dira; 18 atestatu egin dira, 9 salaketa eta 8 babes-agindu ezarri dira. Datu batzuek, gainera, irregulartasunak agerian utzi dituzte; 2020an 102 urruntze-agindu indarrean zeuden, aurten, berriz, 38. Datu horiek erregistratuta daudenak besterik ez dira. Kontuan izan behar dugu eraso matxisten %30 bakarrik salatzen dela; eta jakin dugula udaltzainen eta gizarte zerbitzuetako arta ez dela egokiena izan halakoak salatzerako unean. Uste dugu benetako zifra ez dagoela agerian.

Arazo hau beste arloetara hedatzen da, gainera: hezkuntzan, esaterako, arreta berezia behar dutenen, eta tratu egokia ez dutenen kopurua handia da.

Orereta eta Donostiako Emakume Etxeetako langileak kezkatuta daude Lasarte-Oriatik hainbat emakumek haiengana jotzen dutelako laguntza eske, hemengo zerbitzuek ez dietelako behar bezalako arreta eskaintzen.

Indarkeria matxista salatzerako Udaltzaingora joan diren hainbat emakumek udaltzainen partetik jasotako arreta erasokorra salatu izan dute. Ez dago arreta hau behar bezalako izatea bermatuko duen protokolorik indarrean eta Udaltzainek formakuntza falta dute.

Horiek zenbait adibide besterik ez dira, eta zerrenda luzeagoa ere egin genezake. Berdintasun-teknikaririk ez edukitzeak sortzen dituen kalteen ondorio dira denak.

Horregatik guztiagatik, ahalik eta azkarren eta aitzakiak alde batera utzita, **Lasarte-Oriako Udalak Berdintasun-Teknikari lanpostua sortzeko eta gizarte zerbitzuak indartzeko eskatzen dut. Guztiontzako bizigarria den Lasarte-Oria baten alde.**

Agur bero bat.

Sinadura.: _____